

# BALIABIDE DIGITALEKIN IRAKASTEKO ETA IKASTEKO SARE\_HEZKUNTZA GELAN PROIEKTUA



PROIEKTUA ELABORATZEKO GIDA  
2018-2019 DEIALDIA  
VITORIA-GASTEIZKO BERRITZEGUNEETAKO IKT AHOLKULARIEN PROPOSAMENA

Proiektua bi zatitan banatzen da, “**Proiektuaren edukia**” eta “**Konpromisoa eta proiektuaren inpaktua**”. Proiektuak, gehienez, 9 orrialde izango ditu (5 orrialde “**Proiektuaren edukia**” eta 4 orrialde “**Konpromisoa eta proiektuaren inpaktua**”).

Zati bakoitza euren balorazio propioa duten hainbat ataletan banatzen da (zehaztuta daude)

## 2. PROIEKTUAREN EDUKIA (5 orrialde gehien jota)

### 2.1.- Ikastetxearen hezkuntza proiektuan duen inplikazioa eta presentzia (4 puntu)

IHP-an (Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua): azaldu IKTak zein neurritan integratuta dauden hezkuntza plangintzaren garapenean eta zein garrantzi ematen zaien. Horretarako, alderdi zehatzei egin beharko zaie erreferentzia: IKT dinamizatzaileak dagoen, formazio planak, IKTetan oinarritzen den berrikuntza metodologikoa eta administratiboa zehazten duen plan bat, IKTen erabilera gelan... IKTek zentroan duten eragina modu koherentean islatzeko konpromisoa, eta oro har, IKTak direla-eta nola jokatzeko asmoa dagoen.

### 2.2.- Hezkuntza digitalaren metodologia pedagogikoak, ikastetxe, ikasgela eta ikasle mailan. (6 puntu)

Gelan erabiliko den metodologiari buruzko zehaztasuna baloratuko da, horren ezaugarriak garbi deskribatzen direla. Halaber, baliabide motak. Zenbat eta zehaztasun handiagoa, hobe. Saihestu gehiegizko “literatura”.

Honako alderdiak nabarmentzea komeniko litzateke:

Berritzaileak eta aktiboak diren proposamen metodologikoak, curriculumean teknologia digitalak bultzatze aldera (POI, Ikasketa Kooperatiboa, Flipped Classroom, Design Thinking, simulazioa, errobotika, errealitate areagotua, ikasketa-kontratua...)

- Gaur egun egiten denarekin alderatuz gero, zein aldaketa ekarriko du proiektu honen inplementazioak?
- Orain erabiltzen diren zein alderdi metodologiko sendotuko dira?
- Teknologia eta pedagogiaren konbinazioak zein funtsezko aldaketa eragingo ditu?
- Argudiatu egin behar da ez dela tresna aldaketa soila (paperetik pantailara), baizik eta metodologikoa.
- (Esteka “Cambio metodológico ya” bideora)

#### Erabiliko diren baliabide digitalen planteamendua eta zehaztasuna:

- Gaur egun eskuragarri dauden baliabideak nola antolatuko dira?
- Zein tresna berri beharko dira baliabide digitalen erabilera orokortzeko?
- Irakasleek eta ikasleek erabiliko dituzten gailuen aurreikuspena.
- Gelako programazioak lantzeko Kuaderno Digitalaren erabilera aurreikusten da?
- Jardueren garapenerako Google Apps moduko plataformak erabiliko dira?: jarduera kooperatiboak, ikaslearen portfolioa (sites), gelako blogak, agendak, IIB (Ikasteko Ingurune Birtuala)...
- Baliabideak erabilera komuneko biltegietan jasoko dira? Biltegi horietan gordeko diren materialak erraz eskuratuko dira?
- Planteatuko ditugun ekintza didaktikoak garatzeko hezkuntza-aplikazioak aukeratuko ditugu? Adib. Kontzeptu mapak, Denbora-lerroak, Panelak (Padlet), Kahoot...

#### Sortuko diren material eta baliabide digitalen aurreikuspena

- Argitaletxeek ekoiztutako zein eduki landuko dira? Zeintzuk moldatu edota sortuko ditugu geuk?
- Argitaletxeek sortuak diren baina editatzeko aukera ematen duten zein material erabiliko dugu?

- Irakasleek azalpen-edukia duten aurkezpenak elaboratuko dituzte?
- Ikasleek manipulatu eta jarduerak burutzeko baliabide interaktiboak sortuko ditugu, adibidez arbela digitalean erabiltzeko?
- Material horiek beste ikastetxe batzuekin sarean partekatzea aurreikusten dugu?

### 2.3.- Irakasleen prestakuntza teknologiko eta pedagogikorako jardueren plangintza (3 puntu)

Irakasleen Konpetentzia Digitalaren markoan ([labur.eus/mccdd](#)), autoebaluazioan ([selfie](#)), arestian aipatu diren planteamenduek sortuko dituzten beharrezanetan (metodologia berritzaile eta aktiboak, baliabide digitalen erabilera eta sormena) oinarrituta, honako alderdiak islatu beharko lirateke:

- Ikastetxean aurreikusten diren formazio-jarduerak: helburuak, denboralizazioa, edukiak, emaileak, hartzaileak...
- Zonalde mailan antolatzen diren formazio-ekintzetan, lurralde edota erkidego mailako prestakuntza proiektuetan, lan-taldeetan... parte hartzea.
- Proiektuaren dinamizatzaileak prestakuntza espezifikoak jasoko du? Zein arlotan? Ze dedikazio izango du ikastetxe barneko formaziorako?
- Ikastetxeko EII-aren (Erakundearen Ikasketa Ingurunea) analisia ([Esteka](#) "Hay mucho conocimiento que cuando un profe cambia de centro se pierde" bideora)

### 2.4.- Zehaztapena, koordinaziorako prozeduraren garapena, proiektuaren jarraipena eta emaitzen ebaluazioa. (3 puntu)

- Proiektuaren garapen, jarraipen eta ebaluazio lanez arduratuko den batzorde bat eratzea aurreikusten da?
- Ba al dago proiektua dinamizatuko duen pertsona bat? Zehaztuta daude bere lanak eta funtzioak? Zein izango da bere ordu-kreditua?
- Nola egingo da koordinazioa zuzendaritza taldearekin, klaustroarekin, inplikaturako irakasleekin, lan-taldeekin, Berritzeguneko mintegiekin eta SHG sareko gainontzeko ikastetxeekin?
- Bi ikasturterako lan-kronograma bat erantsi beharko litzateke. Lehenengo ikasturteari dagokiona zehatzagoa izan beharko litzateke.
- Proiektua ebaluatzeko adierazleak zehaztu.
- Familiarekin koordinazioa eta euren papera proiektuaren garapenean.

### 2.5.- Lehendik izandako esperientzia berritzaileak, hezkuntza digitalaren proiektuetan. (2 puntu)

Esperientziak zehaztu (kopurua, iraupena, inplikaturako pertsonak, hedadura geografikoa....)

Honelakoak:

- Proiektu kolaboratiboak, adibidez Pelutxe, Asmakilo, Hamaika Haizetara, eTwinning...
- Partekatuz Ikasi-n (tutore moduan edota tutorizatu bezala) parte hartu izana, betiere ikasketa digitalekin lotua izan bada.
- IIB-EVAren erabilera sistematikoa, adibidez Moodle, Edmodo, Classroom, ikasgai telematikoa, elkar-trukaketa birtualak beste zentroekin...
- Liburu digitalen erabilera.
- Nolabaiteko entitatea duten baliabide digitalen sormena.
- [Procomún](#), [Agrega](#), [Tiching](#)... bezalako baliabide-biltegietara egindako ekarpenak.
- Irakas-ikas prozesuak kudeatzeko Google Apps bezalako ingurune kolaboratiboen erabilera.
- Eskola 2.0 programan izandako esperientzia zehaztu. Programa horrek eskaini zituen baliabideak eta materialak zein neurritan erabili izan diren eta haien bidez zer lortu den.

### 3. KONPROMISO ETA PROIEKTUAREN INPAKTUA (gehienez 4 orrialde)

#### 3.1.- Hezkuntza-taldeak edo ildoak, emandako ikasgaiak eta proiektuan parte hartuko duten irakasleak. (2 puntu)

*Deialdian jarritakoa aintzat hartuz:*

*4.3 Artikulua - "... arlo edo ikasgaietan unitate didaktiko bat edo batzuk irakatsi behar dituzte modalitate digitalean hautatzen dituzten kurtsoetako talde guztietan..."*

*4.4 Artikulua - "Heziberri 2020 Planaren esparruan Material Didaktikoen Programaren bidez (digitala edo paperekoa) finantzaturako Oinarrizko Hezkuntza eta Batxilergoko curriculum egiteko material didaktikoen herena digitala izango da, gutxienez".*

*Atal honetan xehetasunez aipatuko dira (ez modu arin edo orokorrean) proiektuak eragingo dituen taldeak, arloak eta irakasleak, proiektuaren bi urteetan bakoitzari dagokiona zehaztuz.*

#### 3.2.- Hezkuntza-komunitatean proiektua zabaltzeko eta familien parte-hartzea sustatzeko aurreikusitako neurriak. (2 puntu)

*Familien artean proiektua jakinarazteko eta beraien inplikaziora sustatzeko neurriak balioetsiko dira. Adibidez, beste gauzen artean zehaztu daiteke:*

- *Familiak parte hartuko dute Sare\_Hezkuntza proiektuaren segimendurako sortutako batzordean?*
- *Familien ordezkariekin beste batzorde bat sortuko al da? Axola zaizkien erabakietan hitza eta/edo botoa izango dute (adibidez, gailu-erosketan)?*
- *Hura ez egitekotan, familiei eman nahi zaien informazioaren bilduma, familiak nahasita egongo diren proposamen eta erabakiekin batera.*
- *Familiekin partekatzen den informazioa eta hedabideak: bilerak, ikastetxeko web orrialdea, sare sozialak, komunikatzeko eta parte-hartzeko erremintak (posta elektronikoa, partekatutako dokumentuak...)*
- *Familiiei zuzendutako formakuntza jarduerak.*
- 

#### 3.3.- Parte hartzeko proiektuaren edukiak beste talde edo irakasle batzuei transferitzeko aurreikuspena. (2 puntu)

*Proiektua beste ikastetxeei ezagutzera emateko eta sortuko diren materialak euren eskuetan jartzeko hartuko diren neurriak baloratuko dira.*

- *Sortutako edota moldatutako materialak antolatzeko moduak eta prozedurak.*
- *Ezagutzak eta esperientziak transferitzeko barne-formazioaren antolamendua.*
- *Edukiak partekatzeko prozedurak; adibidez, Google tresnak, Moodle, Sites, Agrega, Procomún, orrialde semantiko ofizialak, blogak, sare sozialak...*

#### 3.4.- Beste eragile edo ikastetxeei esperientziatik eratorritako ezaguerak transferitzeko edo prestakuntza emateko aurreikuspena. (2 puntu)

*Esperientzia ikastetxetik kanpo ezagutarazteko -lorpenak, zailtasunak, garatutako praktikak...- aurreikusten diren neurriak baloratuko dira.*

- *Garatutako lanaren inguruko gogoetak eta ondorioak Sarean partekatzeko moduak eta prozedurak.*
- *Edukiak partekatzeko prozedurak, esaterako Google tresnak, Berritzegune Nagusiko edota zonaldeko Berritzeguneko Moodle-a, Sites, Youtube-ko kanala, blogak, sare sozialak...*
- *Tutore moduan Partekatuz Ikasi-n parte hartu?*
- *Hezkuntza berritzatzeko jardunaldietan parte hartu? Ikastetxearen esperientzia "Praktika egokia" bezala aurkezteko ponente moduan parte hartu?*
- *Hezkuntza munduari lotutako aldizkarietan -analogikoak zein digitalak- artikulua argitaratu.*
- *Autoebaluazioa eta foro horietan parte hartzea hobetzeko prozedurak.*

**3.5.- Ibilbide komuna eta proiektua partekatzen duten Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeak. (4 puntu)**

- *Aipatu behar da zein ikastetxeekin partekatzen den ibilbidea (zein den LHko zentro(ar)en erreferentziazko institutua, eta SHG proiektuan dagoen edo sartzeko asmoa duen)*
- *Ibilbidea partekatzen duten ikastetxeen proiektu komuna. Proiektu horretan gailuen erosketari edota tresna digitalen erabilerari (EII - Erakundearen Ikasketa Ingurunea) buruzko erabakiak jasoko dira.*
- *Proiektu komun hori koordinatzeko bileren kronograma.*



SareHezkuntza2018 proiektua egiteko gida by [Berritzeguneetako IKT aholkulariek](#) is licensed under a [Creative Commons Reconocimiento-NoComercial 4.0 Internacional License](#).



